

B euskararen BERRIPAPER

Euskarazko bideoak: bide berriak urratuz

Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak 1987an "euskarazko bideogintza ez-didaktikoa" izeneko egitaraua sortu zuen. Programaren helburua filmeak euskaraz, bideo formatuan, argitaratzea eta merkaturatzea zen. Honez gero, genero guztietako 120 bideo kaleratu dira: abenturazkoak (*Azken mohikanoa...*), dramak (*Harreman arriskutsuak...*), epopeiak (*Ben-Hur...*), fantasiarazkoak (*Batman...*), komediak (*Wanda izeneko arraina...*), musikalak (*Ozeko azitia...*), western-ak (*Rio Bravo...*), sailak (*Gremlin I, Gremlin II...*), zientzia fikzioz-

ren, esan dezakegu egitarauak oso harrera ona izan duela eta merkaturatzea sortua dagoela. Izan ere, umeentzako filmeak bereziki oso ondo saltzen dira eta horren froga da izenburu asko eta asko agortuta daudela.

Bide berria

Kultura Sailak, ikusita hainbat enpresa interesatuta zeudela beren kontura euskarazko bideoak ateratzeko eta merkaturatzeko, 1997ko azaroaren 21ean "bideoklubetan eta bestelako zirkuitu komertzialetan euskarara bikoiztutako bideoen kopurua areagotzeko dirulaguntzak emateko" Agindua argitaratu zuen (EHAA, 224 zk). Deialdiaren bidez, hamabi milioi eta erdi inguru banatu dira. Hiru produktumota hartzen ditu kontuan: bakar-bakarrik euskaraz, edo gaztelaniaz batera, merkaturatzea; dagoeneko merkaturatutako bideoak baina oraindik euskaraz argitaratu gabek; eta merkaturatutako bideoak berriz argitaratu nahi direnak, edota, euskarara bikoiztuta egonik, oraindik merkaturatutako bideo-formatuan ez daudenak.

Horrek, euskaraz, bere kasa funtzionatzeko pauso garrantzitsua da. Izan ere, bideoen produkzioa eta merkaturatzea enpresaren konturakoak izango dira, eta euskarazko bertsioko egiteak sortutako gastuak, hau da, bikoizketa, masterra eta karatulako gastuak, diruz lagunduko dira. Sustapen gasteen zati bat ere lagunduko da.

Euskarazko bideoak merkaturatu

Irekitako bide berriak hainbat abantaila ditu. Besteak beste, diru-kopuru berdinarekin produktu gehiago egongo da merkaturatzea eta, bestetik, industria

1998ko Agindua tramitazio bidean dauka Kultura Sailak.

SUMARIOA

- 1** Euskarazko bideoak: bide berriak urratuz
- 2** Laburrak
Joan Mari Torrealdai
Agenda
- 3** Euskalkien mapa berria
Europako dirulaguntzak
Ahoz aho, belanez belan
- 4** Pertsonaiak
Strasbourgeko hitzaldiak
Lehen begiratuan

1998ko Agindua tramitazio bidean dauka Kultura Sailak.

Euskarazko bideo berriak

- * BEATRIX POTTER bildumako marrazki bizidunak:
 - Samuel bibote jaunaren ipuina.
 - Tiggy-Winkle anderea eta Jeremy Fisher.
 - Filomenaren untzikumeak eta Arratoi Pinpirin anderea
 - Bi sagu bihurri eta Johnny Kaletararen ipuina
 - Jaun Azeriren ipuina. Periko eta Benjamin untxien beste abentura batzuk.
- * Xirula magikoa: Mozarten operan oinarritutako marrazki bizidunak.
- * Napoleon, txakurtxo abenturazalea: benetako animaliekin egindako filme zoragarria.
- * BOSTAK laguntalde klasikoaren abenturak. Lau bideozinta:
 - Bostak eta irlako altxorra. Bostak abenturaren aurrean.
 - Bostak Kirringo uhartean berriz ere. Bostak Deabruaren harkaitzetan. Bostak pasabide sekretuan.
 - Bostek primeran pasatzen dute. Bosten beste abentura bat. Bostak Finniston etaldean.
 - Bostak larrialdian. Bostak akanpadan. Bostak kontrabandistaren muinoan.
- * STUPID familia: komedia dibertigarria pertsonaia bizidunekin.
- * Lepo-moztaileen uhartea: abenturazko filmea Geena Davisekin.
- * Andersen harrigarria: familia osoarentzako filme klasiko.
- * Anna-Anna: bederatziko urteko neska baten fantasia-mundua.

Berrargitarapenak

- * BEATRIX POTTER bildumako marrazki bizidunak:
 - Periko eta Benjamin untxien ipuina.
 - Gloucester-eko jostuna.
- * Asterix: menhirkada.



koak (2001: espazioko odisea...), zine beltzekoak (*Lekuko bakarra...*), dokumentalak (*Salba dezagun panda...*), euskal zinema (*Ke arteko egunak...*) eta marrazki bizidunak (*Asterix galiarra...*). Hamar urteko ibiliaren ondo-

LABURRAK

Euskararen Unibertsoa

Euskararen Unibertsoa jardunaldiak liburua kalean dago jadanik. 1997ko martxoan egin ziren jardunaldiok. Txostena atera zen bertatik eta gerora egindako ekarpenak eta saioetako ondorioak bilduz kaleratu da liburua. Hiru ardatz nagusitan egituratuta dago: euskararen gaur egungo egoerari buruzko gogoeta, plan estrategikoaren nondik-norako eta gizarte-eragina sakontzeari buruz diharduena. Bilketa-lanaz gain, euskararen komunitateak garapen osoa izan dezan egin beharreko urratsak ere aipatzen dira liburuan, abenduaren 6an Durangon eratu zen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bere egin zituen urratsak. Euskalgintzan dabilzan 50en bat elkarte ordezkatzen ditu Kontseiluak.




Abokatu euskalduna hautatzeko aukera

Ofizioko abokatu euskalduna hautatzeko aukera egia bihurtu da Gipuzkoan. Abokatuen Elkargoko Euskara Batzordeak Gipuzkoako abokatu euskaldunen zerrenda aurkeztu zion orain hilabete batzuk Abokatuen Elkargoari eta honek ekimena onartu ostean, martxan jarri du jada zerbitzu hori. Guztira 75 abokatu euskaldun inguru dira ekimen honekin bat egin dutenak. Gipuzkoako herrialde-epaitegi guztietan –Donostia, Azpeitia, Irun, Eibar, Tolosa eta Bergaran– ofizioko abokatu euskalduna eskatu ahal izango da. Hala ere, Irungo epaitegian, oraingoz, kanpoko abokatuek hartu beharko dute euskarazko epaiketen ardura bertan ez baitago nahikoa abokatu euskaldun. Bestalde, Bizkaian ere martxan da ofizioko abokatu euskalduna eskaintzeko ekimena. Aurrerantzean, ekimen honekin gero eta abokatu euskaldun gehiagok bat egitea espero da.

Joan Mari Torrealdai Nabea

Joan Mari Torrealdai euskal idazle eta kazetari bizkaitarra Foruan jaio zen 1942an. Parisen Soziologian lizentziatu zen, Okzitaniako Tolosan Teologian eta EHUn Informazio Zientzietan; bestalde, Deustuko Unibertsitatean Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktore egin zen 1991n. Euskal Idazleen Elkarteko idazkari (1969-70) eta *Anaitasunako* zuzendari izan da (1974-77). 1960az geroztik *Jakin* aldizkariari lotua dago: kolaboratzaile hasieran, 1964-69 bitartean zuzendari eta 1977az gero *Jakin* aldizkari berrituko zuzendari da. *Euskaldunon Egunkariako* sustatzaile eta kontseiluko zuzendari izateaz gain, euskaltzain urgazle ere bada.



Artikulgile emankorra dugu Joan Mari Torrealdai; liburuak ere baditu, saiakerak eta kazetaritza-arlokoak batik bat. Hona hemen bere argitalpen aipagarrienak: *Iraultzaz* (1973), *Euskal Idazleak Gaur* (1977), *Euskal Telebista eta Euskara* (1985) eta *Euskal Kultura Gaur* (1997). Euskaraz zer, zertaz, zertarako eta

zeinentzat idazten den jakin nahiak bultzatuta, euskarazko liburugintzaren azterketa eta katalogazioari ekin zion duela 20 urte pasatxo. Lan horren berri urtero eman izan du *Jakin* aldizkarian. Horrez gain, euskal liburuen hiru katalogo kaleratu ditu XX. *Mendeko Euskal Liburuen katalogoa I, II, eta III*, hain zuzen.

AGENDA

Eskola Publikoaren festa

Datorren maiatzaren 17an, Donibane-Lohizunen eskola publikoaren festa izango da IKAS-BI elkartearen eskutik. Iparralde zein Hegoaldeko guraso, irakasle, ikasle eta gainerako guztientzat zabalik egongo da. Egun osoan zehar kirolak, bertsolariak, umeentzako parkea, pailazoak, etab. izango dira. Aurtengoa hamabigarren urtea da eta Europako Batzordeak, Akitaniak, Eusko Jaurlaritzak eta Donibane-Lohizuneko udalak babesten dute.

Curriculum berriaren jardunaldia

UEUK eta HABEk elkarlanean antolatutako jardunaldi hauetan, curriculumaren berrikuntza zertan datzan, bere oinarri linguistiko, psikolinguistiko, metodologiko eta soziokulturalak eta martxan jartzeko dauden zailtasunak aztertuko dituzte lan-saio eta mahainguruan. Mikel Aizpuruk (UEUKo zuzendaria), Jokin Azkuek (HABEko zuzendaria) eta hainbat euskaltegitako irakasleek hartuko dute parte. Saioak Bilboko Juan de Larrea aretoan izango dira (Gran Via, 50) martxoaren 27an.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**

Martxoaren 2tik 15era Amurrión eta 16tik 31ra Urretxu eta Zumarragan

Euskalkien mapa berria

Koldo Zuazok, EHUko irakasle denak, euskalkien mapa berria prestatu du. Horretarako, euskalkien ezaugarriak eta Luis Luziano Bonaparteren garaitik hona euskararen egoerak izan dituen aldaketak aztertu ditu. Luis Luziano Bonaparte printzearen euskalkien mapa, beraz, zaharkiturik geratu da. Bonapartek 1870eko hamarkadan egin zuen euskalkien mapa izan da, orain arte, erreferentzia nagusia. Hala ere, orduetik hona euskararen hizkuntz egoera eta bizimodua erabat aldatu dira –batetik, euskara batua daukagu eta euskara bera normalizazio bidean sartuta dago eta bestetik, euskalkiak bateratuz doaz– eta horrek eragin handia izan du. Mapa berria egiteko hiru arrazoi nagusi aipatzen ditu:

- ✓ Bonaparteren sailkapenak akatsak izatea. Bonapartek hizkerak sailkatzeko erabili zituen irizpideak zein ziren ikertu ondoren, ahulegiak zirela ikusi zuen Koldo Zuazok.
- ✓ Euskalkiak ere aldatzea. Zenbait hizkerak garai desberdinetako ezaugarriak zituela ikusi du; bat-

zuk antzinakoak ziren eta besteak, aldiz, berriagoak. Berriak indartuz eta zaharrak ahulduz doazela ere nabarmendu du.

- ✓ Euskalkien mapa berriak ezaugarri jakin batzuk izatea. Guztira 108 ezaugarri erabili dituz lan hau egiteko –Bonapartek 74 baino erabili ez zituenen–. Hiru irizpideri jarraiki bildu ditu ezaugarriok: eremu zabalean erabiltzea; etekin handikoak izatea, maiztasun eta erregularitasun handiz betetzea, alegia, eta bizirik egotea.

Ikerketaren ondorioz, 6 euskalki nagusi eta euren gutxi gorabeherako mugak erakusten diren mapa berria egin du: Mendebaldekoa (Bizkaia, Gipuzkoako Deba arroa eta Arabako Aramaio-Legutio aldekoa), Erdialdekoa (Gipuzkoa eta Nafarroako mendebaldekoa), Nafarrera (Nafarroako ipar-mendebaldekoa), Nafar-lapurtera (Lapurdi eta Nafarroa Beherekoa), Zuberera (Zuberoakoa) eta Ekialdeko nafarrera (Erronkari eta Zaraitzukoa). Azken hau, euskalkitzat jo duen arren, ia desagertua dagoela onartzen du Koldo Zuazok.

DEIALDIA

Europako dirulaguntzak

Eremu urriko hizkuntzak sustatu eta babesteko Europako Batzordeari eskabideak aurkezteko epea apirilaren 1ean amaitzen da. Egitasmoek dimentsio europarra izan behar dute. Bestalde, hizkuntzaren irakaskuntzara, normalkuntzara eta hizkuntzaren kultur eta gizarte sustapena bultzatzera bideratutako proiektuak lagunduko dira, deialdian jasota dagoenaren arabera. Horrez gain, Europako Batzordeak kontuan hartzen ditu egitasmoez dakarten berrikuntza eta eragin biderkatzailea. Dirulaguntza, gehienez ere, proiektuaren % 50 izaten da. Gogoratu proiektuak Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren bitartez aurkez daitezkeela. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu: 945 - 18 80 90.



Euskararen jarraipenari eusteko familiak eta eskolak duten garrantziaz sentsibilizatzeko kanpainaren barruan, herriz herri ibiliko den *Ahoz aho, belanez belan* erakusketa antolatu dute aurten ere Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hezkuntza Sailek. Kanpaina 10.000 biztanletik gorako zenbait udalerritara iritsiko da, lekuan lekuko ikastetxe eta kultur etxeen laguntzarekin. Erakusketa hartuko duten udalekin Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatuko du.



- | | |
|---|--|
| 1 BARAKALDO
<i>Barakaldoko Udal Patronatoa</i>
urtarrilak 1/15 | 6 ZUMARRAGA
<i>Zumarragako Udala</i>
martxoak 16/31 |
| 2 ZARAUTZ
<i>Zarauzko Udala</i>
urtarrilak 19/31 | 7 ARADIÑO
<i>Abadiñoako Udala</i>
apirilak 20/27 |
| 3 ZORNOTEA
<i>Zornotzako Udala</i>
otsailak 11/27 | 8 IRUN
<i>Irungo Udala</i>
maiatzak 4/16 |
| 4 AMURRIO
<i>Amurrioko Udala</i>
martxoak 2/15 | 9 SANTURTZI
<i>Santurtziko Udala</i>
maiatzak 18/31 |
| 5 URRETXU
<i>Urretxuko Udala</i>
martxoak 16/31 | |

Jose Antonio Mujika Casares

Jose Antonio Mujika filologoak oraintxe aurkeztu du bere tesia: *Euskal ortografiaren hastapenak Iparraldeko literaturan*, Patxi Goenagaren zuzendaritzapean. 1943an jaiotako donostiar honek Bibliaren inguruko ikasketak egin zituen Erroman eta Filologia Hebreoa Bartzelonan. Donostiako Irakasle Eskolako irakasle eta Hezkuntzako ikuskari izan da. 1981ean institutuko katedra lortu zuen eta, gaur egun, Urrutiko Batxilergorako Euskal Institutuko (IVBAD/UBEI) euskara-irakasle da. Bere lan-iharduera euskal filologia da; euskarako irakasle izateaz

gain Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko kide da hasieratik bertatik eta euskara ikasteko zenbait metodotan (Jalgi hadi; Bakarka, ...) parte hartu du. *Perpaus bakunaren sintaxia*; *Testuak aztertzen* eta irakaskuntzarekin lotutako beste zenbait lan argitaratu ditu.

Bere tesiak euskal ortografiaren azterketarako ekarpen nabariak egin ditu: Iparraldeko literaturaren hastapenak (1545-1720) aztertu eta idazleek erabilitako grafia zehazteko ahaleginaz gain, haien azpian dauden irizpide orokorrak ere argitara ekarri ditu.



Pantxo Hirigarai

Pantxo Hirigarai antzerki-idazle eta kazetari behenafarra Baigorri jaio zen 1957an. Literatura-alorreko batxilergoko ikasketak egin zituen. 1984az gero, Donibane-Garaziko Irulegi irradian ari da. Xirristi Mirristi antzerki-taldean sartu zen 1983an eta hainbat antzerki umoretsu antzeztu ditu geroztik. Irratirako antzerki asko idatzi ditu; besteak beste, *Antton eta*

Maria, 1987tik 1994ra bitartean Irulegi irradian emititu dena. *India Beltzak* (1995) antzerkia eta *Pontzio Crauxori* (1992) eta *Otto Kristobal* (1997) toberak ere egin ditu. Miarritzeko Hiria Sariko nobela-saria *-Borda Zaharra* lanagatik- eta Donostia Hiria Sariko, antzerki-saria *-Beherearta* lanagatik- jaso zituen 1997an. Antzerki hori



behenafarreraz idatzia dago eta trenean desagertzen den neska baten istorioa kontatzen duen komedia bat da.

Strasbourgeko hitzaldiak

Hil honetako 26 eta 27an, Strasbourg, Alsazian, Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren inguruko hitzaldi-sorta izango da. Eusko Jaurlaritzaren izenean Mari Carmen Garmendia, Kultura sailburua, eta Josune Ariztondo, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, joango dira, eta ekonomia eta gizarte-bizitzan eremu urriko hizkuntzen erabileraren inguruan jardungo dute, egindako gomitari erantzuteko.

Hain zuzen ere, Eremu Urriko Hizkuntzen Europar Gutunaren 13. atala aipatuko dute bereziki. Atal horretan baitago jasota nola idatzi eta bultza daitezkeen eremu urriko hizkuntzak ekonomi eta gizarte arloan. Strasbourgeko hitzaldiotara, 40 estatutako gobernu eta eremu urriko hizkuntzetako ordezkariak bilduko dira.

Lehen begiratuan

Megasonikoak animazioko euskarazko lanak Goya Saria jaso du, Espainiako Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiaren 1998ko animazioko filme onenaren saria hain zuzen. Ordenadore hutsez Europan egindako hiru dimentsioko lehen filmea da. Donostiako Zinemaldian estreinatu zen joan den urtean, eta gure herrietako zine-aretoetan dago ikusgai.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
1010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.: